JAIME

Enpresaburu erdalduna

"Kultura sustatzea ez da enpresaren egitekoa. Euskararen gaia lantzea ez dagokio enpresari, zerbait pertsonala da

63 URTE, DURANGO

LANA ELGOIBARREN

IBILBIDE PROFESIONALA

- Ingeniaritza ikasketak ditu.
- Oso gazterik hasi zen enpresan lanean.
- Zuzentzen duen enpresaren sortzailea da.
- Beste enpresa egitura edo elkarte batzuetako kide eta ordezkari ere bada; enpresa taldea, sektoreko klusterra, patronala,…
- Administrazioarekin eta unibertsitateekin harremana dauka eta oso ondo ezagutzen du bere sektoreko teknologia arloa.
- Gaztelaniaz lan egiten du.
- Erretiroa oso gertu dauka.

MOTIBAZIOAK

- Gazteak euskaraz lan egiteko prestatuta datoz eta denborarekin joango dira enpresak euskaldunduz.

KEZKAK

- Talentua erakartzeko zailtasunak ikusten ditu.
- Enpresaren egitekoa aberastasuna sortzea da eta enpresaren iraunkortasuna nahi du.
- Nazioartean lehiatzen du eta enpresaren emaitza ekonomikoek kezkatzen dute.

NARRATIBAK

- Desiragarria litzake enpresan hasten direnek **euskararen ezagutza** maila bat izatea.
- Euskara ez da enpresaren **kezka edo helburu**; euskara norbanakoen kontua da, zerbait pertsonala.
- Euskara **lan munduan** garatzeko muga handiak daude; kanpo mugak (nazioartekotzea, bezeroa, hornitzaileak…) eta barne mugak (lankideen euskara ezagutza eta egungo kontratazio beharrak).
- Enpresa barruan euskaraz egitea **zerbait naturala** izan behar da, ezin da inposatutako zerbait izan.
- Maila lokaleko merkatu eta helburuak dituzten enpresek euren **helburuak lortzeko** euskararen gaia landu egin behar dute.